

04/08 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.
Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Ochoa jn.
Tomás Ordeñana jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko ekainaren 6ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Lanbide Heziketaren Berriztapenerako eta Etengabeko Prestakuntzarako Zentroa (TKNIKA) sortzen duen eta lanpostu zerrendak onartzen dituen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Lanbide Heziketaren Berriztapenerako eta Etengabeko Prestakuntzarako Zentroa (TKNIKA) sortzen duen eta lanpostu zerrendak onartzen dituen dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

I.- AURREKARIAK:

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen III. Kapitulua hezkuntzako laguntza zerbitzuen eginkizunak eta jarduera-eremuak zehazten ditu.

EAEko Unibertsitatez Kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 33. artikulua ikerketako eta irakaskuntzako laguntza zerbitzuetako lanpostuen hornidura nola egin behar den definitzen du.

Otsailaren 13ko 25/2001 Dekretuak, abenduaren 26ko 368/2001 Dekretuak aldarazitakoak, Ikerketarako eta Irakaskuntzaren Laguntza Zerbitzuetako lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak zehazteko berariazko araubidea finkatzen du: ISEI, BERRITZEGUNE, IIHI, LH.-ko Kalitate eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia, Koalifikazioen eta LHren Euskal Institutua eta etorkizunean sor daitezkeen ikerketako eta irakaskuntzako laguntza zerbitzuak.

Azkenik, Lanbide Heziketako Euskal Planak bere VI. Kapituluako 2. atalean (Kalitatea hobetzeko programak) dio badirela zenbait faktore Lanbide Heziketako kalitatearen hobekuntzan eragin berezia dutenak eta, hain zuzen ere, horietako bat dela Lanbide Heziketako irakasleek teknologia berri eta hazkorretan prestakuntza eguneratua izatea.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 10 artikulua, sei xedapen gehigarri eta hiru azken xedapen ditu.

1. artikulua dio Dekretuaren helburua dela Lanbide Heziketaren Berriztapenerako eta Etengabeko Prestakuntzarako Zentroa (TKNIKA) sortzea eta, bestalde, bere eginkizunak zeintzuk diren zehazten ditu, alegia: LHko irakasleak teknologia berrietan trebatu eta eguneratzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetuko dituzten ingurune berrietan aurrera egitea.

2. artikulua honela definitzen du TKNIKA: ikerketa, berrikuntza eta irakaskuntzako laguntza zerbitzua da, organikoki zein funtzionalki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzari atxikirik dagoena.

3. artikulua zentro honen eginkizunak finkatzen ditu.

4. artikulua lau alorretan zatitzen du zentroaren egitura: berrikuntza, e-learning eta IKTen dinamizazio alorra; Teknologi Berrikuntzako alorra; Kudeaketa Berrikuntzako alorra; eta, azkenik, Prestakuntza Espezializatuko alorra. 5. etik 8. era bitarteko artikuluek alor bakoitzeko eginkizunak definitzen dituzte.

9. artikulua ezartzen du zentro honek zuzendari bat izango duela eta zuzendariak alor guztiak koordinatu eta zuzenduko dituela.

10. artikulua zentroko aurrekontua aipatzen du eta zenbait berezitasun azpimarratzen ditu.

Lehenengo xedapen gehigarriak ezarri du Lanbide Heziketaren Berriztapenerako eta Etengabeko Prestakuntzarako Zentroaren (TKNIKA) lanpostu zerrenda I. eranskinean jasotakoa dela eta bakoitzaren eginkizunak definitzen ditu. Bigarrenak dio lanpostuak hornitzeko sistema merezimendu bidezko lehiaketa izango dela. Hirugarrenak zuzendariaren eta alorreko koordinatzaileen osagarri espezifikoak jasotzen ditu.

Laugarren xedapen gehigarriak dio I. eranskinean zerrendatutako lanpostuez gain, zentroak 21 plaza izango dituela (15 e-learning edukien garatzaileentzat eta 6 alorreko dinamizatzaileentzat), unean-uneko proiektuak garatu ahal izateko; eta, era berean, adierazten du plaza hauek zerbitzu-eginkizunetan edo aldi baterako atxikipenean beteko direla, hain zuzen ere, proiektuak dirauen aldirako. Horrez gain, eginkizunak eta deialdien ezaugarriak ere zehazten ditu.

Bosgarren xedapen gehigarriak TKNIKAren eta beste ebaluazio, ikerketa eta laguntza zerbitzu batzuen arteko koordinazioa arautzen du. Seigarrenak administrazio publikoekin, unibertsitateekin eta erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak egiteko aukera jasotzen du.

Azken xedapenatarik lehenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari eskumena ematen dio dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko; bigarrenak 30/1992 Legea aplikatuko dela adierazten du eta hirugarrenak dekretua indarrean jartzeko data zehazten du.

III.- BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek jakinarazten du erakunde honetan ordezkaturiko hainbat sektore haserre agertu direla WEB orri baten bidez izan dutelako zentro honen berri.

Hezkuntza erkidegoko parte-hartze organo gorena garen aldetik, uste dugu hezkuntza erkidegoan inplikaturiko sektore guztiek ezinbestez parte hartu behar dutela Saileraren ekimen guztietan, hartara, eskola sistema bultzatzen eta kalitatea ziurtatzen delako.

Dekretu proiektu honi dagokionez, ontzat jotzen dugu Lanbide Heziketaren etengabeko hobekuntza sustatuko duen zentro bat sortzea.

Dena dela, ohar batzuk egin nahi dizkiogu dekretu proiektuari:

- **1. artikulua** (dekretuaren helburua jasotzen duenak) 1. eranskineko lanpostu zereñden onarpena jaso beharko luke, dekretu proiektuaren izenburuak adierazi bezala.
- **3.7 artikulua** hauxe dio: *“Berrikuntza teknologikoko prestakuntza eta produktioari eta zerbitzuei aplikaturiko teknologia berrien inguruko prestakuntza eskaintzea eta ematea EAEko, Estatuko eta Europako ikastetxeetako LHko irakasleei”*; bada, badirudi egokiago litzatekeela nazioarte osoa aipatzea eta teknologikoki hain garaturik ez dauden herrialdeekiko lankidetzaren ere arautzea.
- Ildo beretik, **3.8. artikulua** hauxe dio: *“Proiektu garrantzitsuak gauzatzea Estatuan eta nazioartean.”*; badirudi EAE aipatzea ahaztu zaiela.
- **4. artikulua (Egitura)** lan alor bakoitzeko eginkizunak zehazten ditu. Deigarria da Lanbide Heziketaren aholkularitza zentro batean harreman soziolaboraletarako alorrik ez egotea. Bestalde, eginkizunen deskripzioa irakurritik badirudi eginkizun batzuk alor artean galtzen direla, beraz, berrikusi eta argitu egin beharko lirateke.

- Nolanahi ere, zentro honen egitura organikoa finkatzeko artikulu bat gutxienez jaso beharko litzateke. Alderdi hau Berritzegune eta ISEletan nola jaso den ikusirik, uste dugu artikulu berri bat ezarri beharko litzatekeela egitura organikoa arautzeko.
- **Lehen xedapen gehigarriari dagokionez**, gure ustez dekretu proiektuaren artikuluetan arautu beharko lirateke zuzendariaren, koordinatzaileen eta edukien garatzaile eta alorretako dinamizatzaileen eginkizunak.
- **Bigarren xedapen gehigarriak** hau adierazi beharko luke: "...ri **ez** dagokionean"
- **Laugarren xedapen gehigarriak** dio zentroko lanpostu zerrendetatik kanpoko 21 plaza daudela, garrantzizko eta epe luzeko eginkizunak dituztela eta "*zerbitzu-eginkizunetan edo aldi baterako atxikipenean beteko direla, hain zuzen ere, proiektuak dirauen aldirako*". Kontuan izanik plaza hauek ezaugarri bereziak dituztela eta teknologia berriak etengabe aldatzen ari direla, komeniko litzateke plaza hauek nola bete behar diren argi uztea eta, era berean, zerrendetatik kanpoko ahalik eta lanpostu gutxien bideratzea.
- Bukatzeko, **bosgarren xedapen gehigarrian** Ikuskaritzaz dihardu, baina egungo izena **Hezkuntza Ikuskaritza** dela azpimarratu nahi dugu, "tekniko" terminoa ezabatu baita.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko uztailaren 8an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.

